



LABURPEN EXEKUTIBOA

Azterketa-ikerlana:
Osasun globalaren,
osasunerako eskubidearen
eta osasunaren
baldintzatzaile sozialen
inguruko ikuspegiak
prestakuntzan, espainiako
unibertsitateetan
2019-2020



Azterketa-ikerlana: Osasun globalaren, osasunerako eskubidearen eta osasunaren baldintzatzaile sozialen **inguruko** **ikuspegiak prestakuntzan,** **espainiako unibertsitateetan** **2019-2020**

IKERKETA TALDEA
Maje Girona Magraner
Inmaculada Gisbert Civera



Argitalpen hau AECID Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren laguntza finantzarioarekin egin da. SANART eta **medicus**mundi dira edukiaren erantzule bakarrak eta edukiak ez du zertan islatu AECIDen iritzia.

LABURPEN EXEKUTIBOA

Azterlan hau **SANART, el arte de hacer salud**, erakundeak egin zuen 2020an, **medicusmundi** España Elkarteek (FAMME) eskatuta eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) finantzatuta.

Izan ere, **Osasun Globalaren, Osasunerako Eskubidearen eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialen** ikuspegiak Espainiako Unibertsitateetan garatzen diren prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzetan duten aplikazioa sakontasun handiagoz ezagutzea izan zen xedea, **medicusmundi** elkarte guztiek esparru hartan egiten duten lana hobetzeko prozesu baten lehen urratsa emate aldera eta, era berean, Unibertsitateetako Departamentu edo Fakultate batzuek, GGKKek eta beste erakunde batzuek **Osasun Globalean, Osasunerako Eskubidean eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialetan** eskaintzen duten prestakuntzari laguntze aldera.

Berariazko helburu hauek ezarri ziren:



Aztertzea Osasun Globalaren, Osasunerako Eskubidearen eta Osasunaren baldintzatzaile sozialen ikuspegitik, zer nolako prestakuntza eta sentsibilizazio jarduketak egiten dituzten FAMMEko elkarteek unibertsitate esparruan.



medicusmundirekin lan egin ohi duten unibertsitateetan eskaintzen diren prestakuntza eta sentsibilizazio guztiak ezagutu eta aztertzea (ikasketa planak, berariazko irakasgaiak, masterra, ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak, etab.), betiere Osasun Globalari, Osasunerako Eskubideari eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialei loturikoak.




Espainiako unibertsitateetan garatzen ari diren ikuspegi, eduki eta metodologia berritzaileak identifikatzea, betiere Osasun Globalari, Osasunerako Eskubideari eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialei loturikoak.



Gomendioak egitea, aipatu ikuspegiak unibertsitate esparruko etorkizuneko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzetan txertatzeko.

Ikuspegi mistoa

Ikuspegi metodologiko misto bat oinarri harturik ekin zitzaien gaiari. Horri esker, eta teknika kualitatiboak erabiliz, aztertu beharreko gaia gaur egun zertan den jakin eta aztertzeko aukera izan genuen. Bestalde, teknika kuantitatiboak erabiliz, egoeraren argazki bat lortu genuen unibertsetez unibertsete azterturiko alderdi horien gainean.





Erabili ditugun tekniketan honakoak daude barne:

literaturaren azterketa dokumental ez sistematikoa, unibertsitate esparruan egiten diren esku-hartzeei loturiko dokumentuen azterketa, bai eta **medicus**mundiren posizionamenduari buruzkoak ere, talde tailerrak FAMMEko elkarreetako taldearekin, elkarriketa erdi egituratuak halako profil jakin bat zuten adituei eta GGKKei, unibertsitateentzako online galdetegi bat, eta unibertsitateetako eta unibertsitatez bestelako zentroetako (Osasun Publikorako Eskolak, adibidez) prestakuntza programen analisia.

A

Osasun globalaren, osasunerako eskubidearen eta osasunaren baldintzatzaile sozialen kontzeptu eta/edo ikuspegiei dagokienez, azterlanak honako ondorio hauek atera ditu:

A1

Osasun globala terminoa ez da berria, beste kontzeptu batzuen bilakaeraren emaitza baita, hala nola nazioarteko osasun publikoa, eta mundu globalizatu eta konektatuaren ikuspegia txertatua dakar. Gaur egun, ez dago adostasun argirik haren esanahiaz.

A2

Osasunerako eskubidea eta osasunaren baldintzatzaile sozialak terminoak osasun globalaren terminoari daude lotuta eta adostasun handiagoa dago haien inguruan. Terminoak oso argiak dira maila teorikoan; **maila praktikoan,** ordea, badira zalantza eta **zailtasun handiagoak.**

A3

Osasun globala, osasunerako eskubidea eta osasunaren baldintzatzaile sozialak

beste kontzeptu batzuekin ere loturik daude, hona hemen: intersektorialitatea, osasuna politika guztietan, gobernantza eta diziplina artekotasuna. Horiek guztiak prestakuntza programetako oinarritzko edukitzat jotzen dira.

A4

Agerian jartzen da osasun globalean ari diren eragileen mapa berria **ekimen berriak eragiten ari dela osasun arloko gobernantzari dagokionez**. Testuinguru horretan, GGKEak birkokatu behar dira eta jarrera hartu behar dute osasun globala nola ulertzen duten agertzeko eta haren alde nola lan egin nahi duten azaltzeko.

A5

Eragile batzuek gaixotasunetan oinarritutako **ekimen global bertikalak jarri dituzte abian; bada, osasun globala ekimen horiekin identifikatzea** aukera galdutzat baloratzen da osasun sistemak sendotzeari begira. Identifikazio hori, aldi berean, lotzen da hain politizatu ez dagoen osasun globala terminoaren konnotazio negatibo batekin.

B

Honakoa ondorioztatu da FAMMEko Elkartek, eta beste GGKE batzuek, unibertsitate esparruan egiten dituzten prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzei dagokienez, beti ere Osasun Globalari, Osasunerako Eskubideari eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialei loturik:

B1

GGKEek eta Unibertsitateek elkarri emaniko balioa. GGKEek hezkuntza formalean ez dauden gaiak ekar ditzakete eta lagungarriak izan daitezke unibertsitatea egungo errealitatera hurbiltzeko. Unibertsitateek, berriz, GGKEen lan kalitatea hobetzen lagundu dezakete ikerlanen edo azterlanen bidez (TFM edo besterik).

B2

Ekintza puntualak eta deskoordinatuak egitea muga da GGKEek erdietsi nahi dituzten helburuak lortzeko.

B3

Unibertsitateek GGKEen rola azpimarratzen dute teoria praktikara eramateko. GGKEek hainbat errealitate ezagutu eta haietan lan egiten dute, non kontzeptuak, jarrerak eta gaitasunak jokoan jartzen baitira; hori dela eta, haiek duten garrantzia nabarmentzen da ikasleek praktikak egin ditzaten eta garrantzia ere badutela teoria praktikara eramateko zailtasunei buruzko eztabaida pizte aldera.

B4

Kudeaketa prozesuek eta lan sistemek bi esparruen arteko lan bateratu eta koordinatua zailtzen dute. Izan ere, Unibertsitateek eta GGKEek antolaketa-kultura oso ezberdinak dituzte eta, horren eraginez, epeek, erritmoek eta emaitzen eskakizunek gauza puntualaz haratagoko ekintza bateratuen plangintza zailtzen dute. Era berean, zailtasunak identifikatu dira prestakuntza ekintza zabalak finantzatzeko orduan.

B5

GGKEentzat, errazagoa da parte hartzea eta emaitza arrakastatsuak lortzea graduondoko prestakuntzan graduakoetan baino. Graduondoko ikasketa jakin batzuek errazago ahalbidetzen dute GGKEen edukiak eta prestakuntza arloko esku-hartzeak sartzea, publiko motibatuagoa dute eta lana kanpo-praktiken bidez zabaldu dezakete.

B6

GGKEek eskarmentu handia dute partaidetzazko tekniketan eta metodologietan osasun globalaren, osasunaren baldintzatzaile sozialen eta osasunerako eskubidearen lanak lantzeko. GGKEek hainbat teknika erabiltzen dituzte sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako, hala nola *storytelling-a*, osasunean dauden baliabideen mapeoak, fotovoice-ak, *role-playing*, simulazio ariketak, bai eta ikaskuntza-zerbitzu arloko metodologiak ere.

B7

Enpatia eta konpromisoa sustatzen dituzten ekintzak daude hobekien baloratuen artean.

Pentsatzen da hainbat ekintza direla erabilgarrienak aldaketak eragiteko, hots, lekukotasun pertsonalak, edo jakintzetan beretan introspektzioa lantzen duten metodologiak, eta horien osagarri, egoera zehatzak aztertzekeo informazioa.

B8

Hegoaldeko erakundeek eta instituzioek unibertsitateetako prestakuntza-prozesuetan parte hartzearen garrantzia.

Ekintza puntualez eta praktikez haratago, haien partaidetza harreman horizontalak egiteko eta beste testuinguru batzuen errealitatea hurbiltzeko modu bat da.

C

Osasun Globalarekin, Osasunerako Eskubidearekin eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialekin lotuta dauden **unibertsitateetako prestakuntza-programei dagokienez, honakoa ondorioztatu da gehienbat medicusmundirekin lan egiten duten unibertsitateetan:**

C1

Azterturiko prestakuntza programa gehienak graduondokoak dira (%65) eta, gehienbat, osasun globaleko (%75), osasunerako eskubideko (%70,8) eta osasunaren baldintzatzaile sozialeko (%70,8) edukiak barnebiltzen dituzte,

bai eta beste batzuk ere, hala nola osasun publikoa, osasun komunitarioa eta kulturartekoa, larrialdiendako erantzuna, osasuna eta habitagarritasuna, giza garapen jasagarria eta GJHak. Zeharkakotasunez, zenbaitek bestelakoak barnebiltzen dituzte, hala nola diziplina aniztasuna, genero ikuspegia eta/edo osasun ikuspegia politika guztietan.

C2

Osasun globalaren kontzeptuari buruzko adostasunik ezaren ondorioz, aztertu ditugun prestakuntza programetan era askotan ulertzen da osasun globala. Prestakuntza programa bakoitzak, halaber, toki batean jartzen du arreta, zer helburu duen eta zer publikori zuzentzen zaion, eta halaber, zer izen ematen zaion; eta programaren izen hutsarekin ezin da jakin nola ulertzen den osasun globala.

C3

Osasun globalak ekintza arloko hainbeste alderdi eta esparru barnebiltzen dituenek, korapilatsua da guztiak prestakuntza programa batean sartzea. Aipatzen da garrantzitsua dela sektorizazioa saihestea, hau da, prestakuntza programak espezializazio zehatzen bat eduki badezake ere, garrantzitsua da esparru globalago eta zeharkakoago batez hornitzea.

C4

Askotariko profilak dituzten profesionalak prestatzea erronka da prestakuntza programak diseinatu eta ezartzeko; hala ere, azpimarratzen da diziplina-aniztasuna programa horien ezaugarria eta ekarpena dela.

C5

Osasun globalaren, osasunerako eskubidearen eta osasunaren baldintzatzaile sozialen ikuspegiak berekin dakarte osasunari testuinguru global baten baitan begiratzea, eta zenbaitetan, zaila da hori graduko irakasgai batean transmititzea, gainerako edukietan txertatua ez badago.

C6

Azterketa kritikoa sustatzearen eta osasunaz haratago jotzearen garrantzia. Osasun globala mundu globalizatu eta interkonektatu batean kokatua dago; hori dela eta, garrantzitsua da ikuspegi eta analisi kritikoa sustatzea desberdintasunak ulertzeko, eta era berean, botereak, patriarkatuak eta kolonialismoak nola funtzionatzen duten ulertzeko.

C7

Osasun globalari buruzko eta osasunaren baldintzatzaile sozialei buruzko prestakuntza ez da soilik unibertsitatera mugatzen. Izan ere,

Osasun Publikoko Eskolak, osasun institutuek eta gobernu zentraleri eta/edo autonomikoei loturiko beste instituzio batzuek prestakuntza etengabea egiten dute, eta horrek pisu handia du jendea esparru horietan prestatzeko.

C8

Galdetegiari erantzun diotenen hainbat gauza nabarmendu dituzte: hala nola parte hartzen duten **irakasleek eta erakundeek hartu duten esperientzia eta haien kalitatea, eduki praktikoa** eta **jatorri zein prestakuntza ezberdineko ikasleen** engaiamendua.

D

Honakoa ondorioztatu da Espainiako unibertsitateetan “Osasun Globalarekin, Osasunerako Eskubidearekin eta Osasunaren Baldintzatzaile Sozialekin” lotutako **ikuspegi, eduki eta metodologia berritzaileei** dagokienez:

D1

Mundua, botere harremanak eta “herritarren boterea” modu kritikoan ulertzeak duen garrantzia; tresnak eman eta metodologiak erabiltzen dira egoera ulertzeko, errealitatearen analisia egiteko eta irtenbideak bilatzeko: diziplina-aniztasunaren bidez begiradak zabaltzen dira eta “herritartasun globalaren” sentimendua sustatzen da, bai eta komunitatearen partaidetza ere.

D2

Ikaskuntza kolektiboak garatzen dira, gero ere kolektibotasunean oinarriturik lan egiteko eta handik begiratzeko. Ezagutzak eta

trebetasunak talde moldean garatzen ikastea lagungarria da arazoak eta irtenbideak beste modu batez ikusteko, betiere nor inplikaturik dagoen eta irtenbideetan zer rol beteko duen identifikatuta, diharduten eragile guztiak barnebilduta.

D3

Eremua ezagutzeak duen garrantzia.

Unibertsitateek garrantzi handia ematen diote alorra ezagutzeari, ezagutzak praktikara eramateko eta teoria praxis sozialarekin integratzeko. "Alorrean" egiten diren praktikei esker, ikasleek egoera diagnostikatzeko, esku-hartzeak diseinatzeko eta ebaluazioa egiteko prozesuetan parte hartzen dute. Horrelako lanak, askotan, Master bukaerako lanarekin (TFM) lotzen dira.

D4

Gaitasunak eta jarrerak ere munduan dugun posizionamenduarekin lotzen dira.

Etnozentrismoa alde batera uztea, komunitate eta herrialdeekiko jakintzen trukaketa aintzat hartzea, hots, gauza horiek balioa ematen diete egiten ditugun ekintza guztiei eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman bertikalak eta paternalistak aldatzen dituzte. Hegoalde-Hegoalde lankidetzak eta lankidetzak teknikoak osasuna jorrazteko beste modu batzuk erakusten dizkigute.

D5

Berrikuntzak osasun globalean duen garrantzia, bai berritzailea zer den eta zer ez den identifikatzeko orduan, bai osasun klinikoagoarekin lotutako alderdiak berritzeko unean (eta horrek klima-aldaketarekin duen lotura), bai kudeaketarekin edo partaidetzarekin lotutako alderdiak berritzeko unean ere.

D6

Gaitasun operazionalagoak txertatzeak oinarrizko tresnak ematen ditu esparru horietan lan egiteko. Izan ere, hainbat tresna jotzen dira beharrezkotzat eta osagarritzat, hala nola osasun publikoko programak diseinatu eta kudeatzea, programa horien ondorio politikoak, ekonomikoak eta kulturalak ebaluatzea, edota pertsonen arteko komunikazio trebetasunak garatzea maila guztietan eta eragile guztiekin lan egiteko.

D7

Prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak ebaluatzearen garrantzia.

Ezagutzak eskuratzea eta horien inguruko gogobetetasuna ebaluatu beharra identifikatzeaz gain, aplikazio praktikoan izaniko aldaketak ere ebaluatu beharra ikusten da, hots, maila pertsonalean nahiz profesionalean eta kolektiboan izaniko aldaketak.

Diagnostikotik eta haren ondorioetatik abiatuta, honako **gomendio eta etorkizun-ildo** hauek proposatzen dira **medicusmundirako**:



medicusmundi

1 Osasun globalaren, osasunerako eskubidearen eta baldintzatzaile sozialen kontzeptuetan sakontzea eta erakundearen sentsibilizazio ekintzetan eta prestakuntza programetan txertatzen hastea.

2 Partaidetzako metodologiei buruzko barne prestakuntza bultzatzea gazteekin eta haien interesekoak diren gaiak jorratzea (generoa, ekologia...).

5 medicusmundik unibertsitateetako prestakuntza programetan parte hartzeko edo haietan eragiteko dituen potentzialtasunak aztertzea.

6 Hegoaldearen ikuspegia txertatzea, baita erakunde bazkideen partaidetza ere. medicusmundiko erakunde bazkideekin diren interesak eta potentzialtasunak identifikatzea gomendatzen da, lankide ditugun unibertsitateek prestakuntza eta sentsibilizazio arloan dituzten beharrekin gurutzatzeko.

3 Bere prestakuntza jardueretan, ikuspegi global-lokalaren arabera **analisi kritiko sakonagoa txertatzea, eta era berean, bestelako gauzak, hala nola zuzeneko harremana Hegoaldeko erakundeekin, kasuan kasuko errealitatean inplikaturiko pertsonen lekukotasunak eta alorrean bertan praktikak egiteko aukera.**

7 Osasun globalaren, osasunerako eskubidearen eta osasunaren baldintzatzaile sozialen esparruan diharduten unibertsitateen mapeo bat egitea. Azterlan hori lehen pausoa bada ere, eta gai horietan diren prestakuntza programen mapa bat marrazten badu ere, **medicusmundi** erabaki beharko du lehenesten ote duen parte hartzea osasunarekin lotutako gradu programetan edo graduondokoetan eta, horren arabera, baloratu beharko du zabaldu behar ote duen unibertsitateen lehen zerrenda hori eta haiekin harremanetan jarri.

4 **Jardunbide onak eta esperientziak partekatzea** (**medicusmundi**ren eta **FAMME**ko beste elkarte batzuen artean), esperientzia horiek trukatzeko espazioak sortuta eta, horrela, ezagutzaren kudeaketa sustatuta.

8 **Unibertsitateekin batera ekintza diseinatzea, ekintza puntualez haratago joateko, betiere herritartasun globalerako hezkuntza prozesuak ardatz hartuta;** hezkuntza prozesuak epe erdi eta luzera. Ekintza horietan, halaber, baloratzen ahalko da prestakuntza edo sentsibilizazio ekintzak irakasleekin egiteko aukera.

9

Lankidetzaren proiektuetan, praktikekin eta TFMkin lotu litezkeen azterlan zehatzetan diren premiak identifikatzea. Dokumentu bat sortzea gomendatzen da azterlan zehatzetan diren premiak identifikatzeko joateko, betiere ikasleen praktiken denboraldian egiteko modukoak.

10

medicmundiren lana eta esperientzia Osasun Publikoko Eskoletara hurbiltzea. Azterlanak agerian jarri du gai horien inguruko prestakuntzaren zati garrantzitsu bat osasun publikoko eskoletan ematen dela; hori dela eta, **medicmundirekin** harremanetan sartzea gomendatzen da gure erakundeak egin lezakeen ekarpena baloratzeko.

12

Ikasleen praktikak alorrean bertan ebaluatzeko prozesu bat zehaztea. Ikasleek proiektuetan duten partaidetza ebaluatzeko metodologia bat zehaztea gomendatzen da, ikasleek berek proiektuei egindako ekarpena neurtze aldera, bai eta ikaslearengan berarengan eragindako aldaketak ere.

13

Birpentsatu eta diseinatzea zer ekarpen egin dezaketen medicmundiren esperientziak eta zereginak prestakuntza programetan, betiere COVID 19aren pandemiaren baitan.

11

Unibertsitate esparruko sensibilizazioa eta prestakuntza ekintzen ebaluazio prozesu bat zehaztea.

Azterlanak, zehazki, ezagutzak eskuratzeari eta haien gaineko gogobetetasunari buruzko ebaluazioa egin beharra identifikatzeaz gain, ebaluatzen ditu halaber zer aldaketa sortu diren aplikazio praktikoan, hala maila pertsonalean, nola profesionalean eta kolektiboan. Horretarako, ebaluazio modeloak aztertuta eta egokitzea gomendatzen da.



Lanuzza, nº 9 - local
28028 Madrid
Tel.: 91 319 58 49 / 902 10 10 65
Fax: 91 319 57 38
federacion@medicushmani.es
www.medicushmani.es

Finantzatzailea:



facebook.com/medicushmani



[@medicushmani.es](https://twitter.com/medicushmani)



[@medicushmani.es](https://instagram.com/medicushmani)